

EUSKAL HIZTEGIAZ EGINIKO ITAUNEN ERANTZUNA

Bilbao, 1986-XI-2

Alfonso Irigoien

Juan Luis Goikoetxea jaunari:

Eskatu didazun eran inprentako probetan koloreztaturik dauden berbez hurrengo hau pentsatzen dut:

Dialekto: [Hitz grekoa denez gero ez dut zer esanik eta ez dago txarto egin duzuen definizioa. Hau berau adierazteko gerra aurrean bederen *izkelgi* ere erabili izan dela esango nuke, baina orain baztertuxe ikusten dut. Kardaberaz-ek lehenago *izkera edo dialekto* idazten zuen, biak elkarren parean ipinirik, baina bere testuetan beretan batzuetan *izkera* erdarazko 'habla'-ren pareko da].

Eragole: [Azkue-k Txorierrikotzat dakar. Nik neuk ez dut inoiz entzun. Definizioa honela zuzenduko nuke: *ekiten diona*, eta ez *ekiten duena*, beti datiboari begira erabili izan baita *ekin*, eta lehenago, gainera, intransitiboa zen, eungo egunean gure artean ohitura aldatu bada ere].

Eragon (du): [Nik neuk umetan beti *bearren daragoio* entzun izan dut Arratian, datiboa fosilizaturik, eta partizipiorik ez genduen erabiltzen, baina Azkue-k Gernikarako datibo eta guzti dakar: *edurrari beragoio*, hau da, *baderagoio*, forma zuzena, -e- duela *d*-ren atzetik, datibodun formei dagokienez. Behar bada egoki litzateke **eragon (du)* hiztegi sarrerari asterisiko bat ipintzea, eta defektibo dela adieraztea].

Ere: [Nik hola ipiniko nuke:] Baiezko perpausetan "baita" har dezake hasieran bere aurretik, bien artean beste elementu batzu ere ipin daitezkeela, eta "bai" azkenean bere atzetik, aditza perpausa berean ez doanean. Ezezkoetan "ezta", eta bere atzetik "ez", kondizio beretan. [Gainerakoa dagoen bezala utziko nuke: (Baiezko perpausetan...)].

Erlatibo: [Ez dut uste, hala ere, erraza denik gaztelaniazko zentzurik gehiengotan erabiltzea: *relativo a...* eta abar. Edozein modutan ere adjetibo erara erabili beharrekoa da: *gauza erlatiboa*. Horrexegatik definizioa zerbait biribil baledi hobe litzeteki. Agian hola:] Beste gauza batekin erlazioa duela adierazten duen adjetiboa.

Euskal: Konposizioko lehen elementu moduan erabiltzen da eta *euskara* hitzari dagokio. Batzuetan zentzua hedaturik Euskal Herriari ere badagokioke, hala nola, *euskal dantzak*. [Ez da adjetiboa].

Euskaldun: [Ondo dago, baina estilozko zuzenketa egin liteke:] Euskaraz jakinik ohituraz erabiltzen duena. [*Egunero* hitza kendu dut, zeren eta atzerrira joanik hiru hilabete berba egin gabe egonarren euskaldun jarrai baitezake].

Euskal Herri: Euskaldunak historian zehar bizi izan diren herriaren izena. [*Lurraldearen* ordez *herriaren* ipini dut, azkenengoak erdarazko 'tierra, país' adierazi nahi baitu].

Euskaltzain: Euskaltzaindiko kide euskara zaintzearen ardura leporatu duena.

Euskaltzaindia: Euskara zaindu eta ikertzeko sortu zen hizkuntzarekiko akademia. Euskaltzaingoa bere gain hartzen dute kide egiten direnek.

Euskaltzaingoa: Euskaltzain izatearen ardura eta lana.

Euskara: Euskaldunen hizkuntza, jatorriz Euskal Herrian erabiltzen dena.

Galdegai: Esaldi baten barruan enfasia eman nahi zaion edo bereziki jakin nahi den elementua. Aditzaren aurreko lekua hartu ohi du. Hitz hau 'elemento inquirido' gure hizkuntzara itzultzeko erabili izan da, baina Azkue-k erdarazkoa sortu zuen momentu beretik euskaraz *gai bilatua* deitu zion bere *Euskal izkindean*. Beste era batera fokoa deritza mundu zabalagoan.

Ipuin: [Ondo. *Kontu* ez da berdin. *Kontuak kontatzea ez da ipuinak kontatzea*].

Izenlagun: [Lehenago *adjetibo* adierazteko erabili izan dela esango nuke. Hiztegia jartzen duzuen zentzuan, oker ez banago, Patxi Goenaga hasi zen izkribatzen geroago. Nik neuk ez dut uste egokiegia denik. Erdaraz halakoei 'complemento determinativo del nombre' derizte —frantsesez ere antzera da—: *las calles de Bilbao*, euskaraz **Bilboko kaleak**. **Bilboko** delakoari izenlagun deitzera makur bagintez, era berean konposizioko lehen elementuari ere, bereziki osorik eta zeharo lotu gabe doanean, modu berean dei geniezaioke, ikus **esku lana** edo **buru lana**. Gure mintzairan lehenengoari problema handirik gabe *izenaren osagarri zeaztailea* dei diezaiokegu, dauden tipoak ondo berezirik noski, zeren ez baitut uste terminologia kontuetan inguruetakoa ohituretarik gehiegi urrundu behar gendukeenik, nolabait homologazio eraren bat bilaturirik].

Izenordain: [Ondo. Erdaraz 'pronombre'].

Izenorde: [Ondo. Izan ere *izenorde* hitza, ipini duzuen bigarren zentzuan, *izenordain*-en lekuan ere erabili izan da].

Joskera: [Ondó. Hutsak zuzendu behar dira].

Pasibo: [*Jasatzen* ez da forma zuzena *jasaten* baino, edo *jasaiten*].

Sustantzia: [Ez dago txarto. Agian **sustantzia** ere sartu beharko litzateke zentzu filosofikorako, horrela erabilera arrunta eta bestea berezirik. Arrunta da, noski, *sustantzi bako gizona*, edo, nahi bada, *sustantzia gabekoa*].

Ukan (du): [Estiloa apur bat zaindu. *Ukan* eta *izan* distribuzio geografikoaren arauera erabiltzen dira, hau da, leku batean *ikusi ukan duguna* dena bestean *ikusi izan duguna*, edo, *nahi ukan dut* batean, eta *nahi izan dut* bestean].

Ereinetz: [Estiloa apur bat landu].

Goraintziak neure partez.